

OLENTZAROAREN BIDEA.

Izena emateko baldintzak.

✓ Izen emateko egunak abenduaren 10ean eta 11ean izango dira, 17:00etatik 18:30etara Gurea Zineman. Plazak 10ean amaitzen badira 11ean ez da izen ematerik izango.

✓ Ikuskizuna 3 eta 9 urte bitarteko haurrei zuzendua dago. 2018-2011 urte bitartean jaiotako haurrek bakarrik eman dezakete izena eta Amasa-Villabonako haurrek lehenetasuna izango dute. Ikuskizuna adin tarte horretako haurrentzat da. Hori dela-eta, ez da komeni adin tarte horretatik kanpo dauden haurrak joatea (ez da izen ematerik onartuko).

✓ Izena ematen dutenen artean, ahal den neurrian, gurasoak baino haur gehiago joatea nahiko genuke. Guraso bakarra joatea nahiko genuke, 4 edo 3 haurrekin edota haur gehiagorekin. Plaza mugatuak direnez, ez zaigu egokia iruditzen hainbat haur plazarik gabe geratzea, izan ere haiek dira egitasmo honen hartzaileak.

✓ Guztira 9 txanda izango dira, eta antolatzaileek izen-emateko orduan adieraziko dizuete zein ordutan izango den zuen txanda. Printzipioz, 17:00etan hasi eta 19:30ak arteko tartean izango dira txandak (45 minutu iraunpena txanda bakoitzean). Taldeak hobeto antolatu eta segurtasun neurriak betetzeko adin tartean arabera osatuko dira taldeak. Hori horrela, gurasoei eskatzen diegu posible bada eskolako lagun-taldeetan antolatu daitezten.

✓ Adierazi nahi dugu, haurrak oso txikiak badira (1 edo 2 urte) ez dutela ikuskizunean kontatzen diren hainbat gauza ulertuko. Hori horrela, plazak mugatuak direnez, hobe da ulertu dezaketen beste haur batzuei lekua utzi eta hurrengo urtean parte hartzea.

✓ Bestalde, adinean geroz eta handiagoak izan ulertzen dugu autonomia gehiago dutela haur talde handiagoetan joateko, guraso bakarrarekin edo birekin joan daitezten proposatzen dugu. Berrito azpimarratu nahi dugu, sortu dugun egitasmo hau haurrei zuzendua dagoela eta elkarrearen helburua haurrek Olentzaroa zer den ulertzea dela.

✓ Heldu bakoitzak, gehienez, 5 lagun izena eman dezake. Izena emateko orduan saiatuko gara lagunarteak errespetatzen. Txanda bakoitzean 50 plaza besterik ez daude.

✓ Antolaketa lanetan ari garenok, ez dakigu COVID-19 dela eta zein egoeretan egongo garen abenduaren 19an. Beraz, jarduera honek aldaketak jasan ditzakeela jakinarazi nahi dugu. Bestalde, aurrera goazen heinean, plaza libreak geratzen badira, aukera egon daiteke izen ematea haur gehiagorentzat irekitzeko.

✓ Ibilbidean zehar derrigorrezkoa izango da musukoa jantzita eramatea eta distantziak mantentzea. Hala ere, antolakuntzak egunean bertan adieraziko dizue zein diren ibilbidean zehar betebeharreko neurriak.

✓ Abenduaren 19an oso eguraldi txarra egingo balu, abenduaren 20ra igaroko genuke egitasmoa. Eguraldiaren arabera aldaketak badira, adieraziko zaizkizue.

✓ Antolakuntzatik adierazi nahi dizuegu guztiok arduraz, errespetuz eta pazientziaz jokatzeko badugu, etorkizunean borondatez antolatzen ari garen herri ekimen hau hobetzeko aukera handiagoak izango direla.

Olentzaroaren bidea eta Zunbeltz Elkartea